



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**“ETA euskararen aldeko talde bat
zela uste nuen”. Hizkuntzari eta
gatazkari lotutako aurreiritziak
gazteen diskurtsoetan**

Samara Velte

33-40 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.04>

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



“ETA euskararen aldeko talde bat zela uste nuen”. Hizkuntzari eta gatazkari lotutako aurreiritziak gazteen diskurtsoetan

Velte, S

Publizitateko eta Ikus-Entzunezko Komunikazioko Saila, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea (UPV/EHU)

samara.velte@ehu.eus

Laburpena

Euskal gatazka armatuaren hondarretan jaiotako gazteei egindako elkarrizketetan oinarrituta, gazteok gatazkari eta hizkuntzari buruz sortzen dituzten ahozko diskurtsoak ditu aztergai ikerketa honek. Galdegaien hasierako fokua beste bat izan arren, elkarrizketatuek sarritan ekarri dute euskararen gaia hizpidera, erakutsiz oraindik ere aurreiritzi politikoak hautematen dituztela hizkuntzaren erabilerarekiko. Sentimendu hau bereziki nabarmentzen da euskara ofiziala ez den gunetako parte hartzaileen diskurtsoetan; hortik ondoriozta genezake hizkuntzaren normalizazioa lagungarri izan daitekeela hizkuntzari egotzitako aurreiritziak gainditzeko orduan.

Hitz gakoak: gatazka, gazteak, euskara, diskurtsoak, aurreiritziak.

Abstract

This article analyses oral discourses extracted from interviewing young people who were born in the last years of the Basque armed conflict. Our research question was motivated by the fact that some of the interviewees themselves brought up the topic of language discrimination when they were asked about the political and armed conflict, although the initial focus of the interviews was a different one; which shows that they still perceive prejudices related to language use. This feeling is especially expressed in the discourses of speakers from areas where Basque is not officially recognized; this could suggest that the normalization of language could be helpful in order to overcome discrimination towards certain linguistic communities.

Keywords: conflict, youth, Basque, discourses, prejudices.

1. Sarrera eta uneko egoera

Beste zerbaiten arrastoan genbiltzala, bilatu gabe bidera atera zaigun ikerketa bat da hau. Euskal gatazkaren memoriaren transmisioari buruzko ikerketa batean du jatorria: 2000. urte inguruan jaiotako gazteek euskal gatazkaren historiari buruz sortzen dituzten diskurtsoen ikerketa baten testuinguruan, ohartu ginen ikerketan parte hartzen ari ziren gazte batzuek hizkuntz diskriminazioaren gaia maiz ekartzen zutela hizpidera, elkarrizketatzaileak gai hura propio aipatu gabe. Euskararen auziak presentzia handia zuen, bereziki, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako gunen mistoko elkarrizketatuen esperientzietan, euren narrazioek adierazten zuten. Horrek hipotesi bat planteatzera bultzatu gintuen: euskara ofiziala ez den eremuetan, oraindik indar handia dutela hizkuntzaren erabilerarekin lotutako aurreiritziek, eta, ondorioz, sentitutako diskriminazio edo seinalamendua ere handiagoa dela gunen horietako gazte euskaldunengan.

Diskurtsoak gertaera komunikatibo gisara aztertzen baditugu, ezin ditugu euren testuingurutik at ulertu. Informazioa ematen digute gertakari diskurtsiboan inplikaturako pertsonen posizio sozialari buruz (Van Dijk, 2003), hala nola, gizarte horretan nagusi diren botere harremanei buruz (Wodak eta Fairclough, 1997). Diskriminaziozko egoerak diskurtsoaren bidez ere erreproduzitzen dira (Calsamiglia eta Tusón, 2012). Testuinguru diglosiko batean, zeinetan hizkuntza ofizial nagusi bat eta hizkuntza gutxitu bat (koofiziala edo ez) elkarren alboan bizi diren, botere harreman bat dago, eta litekeena da diskurtso nagusiek ere gatazka linguistiko hori islatzea, esate baterako, hizkuntza gutxituko hiztunekiko aurreiritzi, konnotazio edo topiko moduan (Tusón, 1997). Euskararen kasuan zehazki, existitzen da hura joera politiko jakin batzuekin (ezkerreko abertzaletasunarekin, batik bat) lotzen duen iruditeria kolektibo bat (Amorrortu et al. 2009), eta aski dokumentatuta daude hura gatazka armatuarekin eta ETArekin lotu izan dituzten diskurtsoak, hizkuntza bera desakreditatze aldera (Torrealda, 2018).

Gutxiespen eta diskriminazio sentimendu horrek, bestalde, hiztunek euren buruaz duten irudian eragin dezake, kasu batzuetan trauma indibidual zein kolektiboak eragiteraino (Madariaga Muthular, 2019).

Gure ikerketan elkarrizketatutako parte hartzaileek, euren adinagatik, urrun sentitzen dituzte gatazka armatuari lotutako gertakariak, ETaren jarduna amaitu zenean adingabeak zirelako. Hala eta guztiz ere, oraindik aipatzen dituzte harekin lotutako aurreiritziak, euren sufritutako diskriminazio linguistikoaz mintzo direnean; batez ere euskarak ofizialtasunik ez daukan guneetan bizi badira. Horretaz ohartzeak eraman gaitu ikerketa honetako galdera nagusiak planteatzera: euskarak aitortza ofizialik ez daukan lurraldeetan eta, ondorioz, hizkuntzen arteko botere harreman hori are agerikoagoa denetan, nabarmenagoa al da euskal hiztunek sentitzen duten seinalamendu eta diskriminazioa? Eta, zehazkiago: diskriminaziozko esperientzia horiek lotura handiagoa ote dute gune horietan euskararen politizazioarekin, euskara ofiziala den guneetan baino?

2. Ikerketaren helburuak


- 2000. urte inguruan jaiotako gazteek, euskal gatazkaz ari direla, euskarari buruz egiten dituzten aipamenak identifikatzea.
- *Gatazka-hizkuntza* binomioaz mintzo direnean erabiltzen dituzten estrategia diskurtsiboak aztertzea.
- Aztertutako diskurtsoetatik ateratako datuak hizkuntzaren ofizialtasunaren arabera, lurraldeka sailkatzea.

3. Ikerketaren muina: metodologia eta datuen analisisa

1990eko hamarkadaren amaieran eta 2000koaren hasieran jaiotako 42 gazterekin izandako elkarrizketak ditu oinarri ikerketa honek. Elkarrizketok 2018 eta 2020 urteen artean egin genituen Euskal Herriko lurralde guztietan: Araban lau elkarrizketa egin genituen; Bizkaian, hamalau; Gipuzkoan, hamar; Ipar Euskal Herrian, lau; eta Nafarroan, zortzi. Azken lurralde horretan, bost elkarrizketa gune euskaldunekoak dira, eta hiru, gune mistokoak. Elkarrizketa bakoitzak 30 eta 90 minutu arteko iraupena izan zuen, eta, arestian aipatu moduan, elkarrizketen gai nagusia euskal gatazkaren historia zen, galderak aski modu irekian planteatuta; parte hartzaileek erabakitako hizkuntza erabili genuen kasu guztietan.

Bildutako ahozko datuak aztertzerakoan, arreta eman ziguten euskarari buruzko aipamen batzuek, eta, lehenbiziko urrats gisara, hizkuntzari buruzko sekuentzia diskurtsiboak identifikatu genituen Nvivo *software*-an termino bilaketa bat eginez.

1. irudia. ‘Euskara’ terminoaren erabilera aztertutako elkarrizketetan, lurraldeka



Populazioaren proportzioa irizpide gisara hartu genuenez, nabarmen handiagoa da euskara ofiziala den guneetan bizi diren parte hartzaileen kopurua: 42tik 36 dira Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa iparraldean bizi direnak. Aldiz, soilik 7 bizi dira Ipar Euskal Herrian edo Nafarroako gune mistoan. Hala ere, haien diskurtsoetan agertzen dira gehien, alde handiarekin, euskarari buruzko aipamenak (1. irudian, Nafarroari dagokion zutabea erlatibizatu beharra dago, bertako parte hartzaile gehienak iparraldeko euskal eremukoak zirelako). Honek iradoki diezaguke euskararen gaiak presentzia handiagoa duela gazte horientzat gatazkari buruz ari direnean, beste lurraldeetakoentzat baino.

Jarraian, diskurtsoaren analisisia baliatuz osatuko dugu gure azterketa.

3.1. Euskararen aipamenak koofizialtasunaren eremuan

Elkarrizketa gehienak euskara koofiziala den eremuetan (EAEn eta Nafarroa iparraldean) egin arren, hizkuntzaren gaia ez da maiz atera gazteon diskurtsoetan, euskal gatazkari buruz ari zirela. Agertu denetan, oro har, euskara bi kontzepturekin lotu izan dute: a) frankismoko debeku eta diskriminazioarekin; eta b) ideologia politiko zehatz batzuekin (euskalduna, abertzale eta, bereziki, ezkerreko abertzale gisara agertzen da erretratututa). Euskara gatazka armatuarekin zuzenean lotzen duten sekuentzia diskurtsibo apurrenetako bat ondorengo adibidekoa da:

A adibidea: N-16-Barakaldo

- 1 *E: Nola azalduko zenioke gaiaz ezer ez dakien bati zer izan den euskal gatazka?*
- 2 *N-16-Barakaldo: Izan zena, nik uste dudanaren arabera? Ba, euskal gatazka – diktadura*
3 *frankistan zehar, hainbat errepresio bide erabili ziren, pixka bat erreprimitzeko eta ezabatze*
4 *– tira, pixka bat ez: dezente – Espainian zeuden nazionalitate, kultura desberdinak ezabatze.*
5 *Haietako bat euskal naziotasuna zen, euskal kultura. (...) Eta praktikan ipinitako neurriak izan*
6 *ziren, bada, zer dakit ba nik? Espainiarra, gaztelania ez ziren hizkuntzen debekua. Haien artean*
7 *euskara dago: Espainiako gainerakoarekiko [sic] oso bestelakoa den hizkuntza bat, eta, beraz,*
8 *nabarmen duen – Euskadiko, Euskal Herriko biztanleei kultura nahiko – esan nahi dut*
9 *kulturen desberdintasunari ekarpen handia egiten diola. Eta beraz ahalegin hori egin zen, hori*
10 *zapaltzeko: kultura desberdin bat izatea, izan ere, horrek bide ematen zion jende horri*
11 *espainiar naziotasunarekin ez identifikatzeko. Beraz, nik uste dut hori dela: euskara zapaldu*
12 *zela, eskoletan debekatu zela, leku guztietan dena berdina izatea nahi zutela, eta,*
13 *orduan, gauza horien haritik, Espainiarekiko oposizio indartsua sortzen da Euskadiko jende*
14 *askoren partetik; nire ustez horrek jarraitzen du oraindik. Eta, bada, hori. Eta gero agertzen*
15 *dira euskal kulturari inolako mesederik egiten ez dioten taldeak, toki txarrean uzten dutelako;*
16 *adibidez, ETA. Baina hura ere, era batean edo bestean, gauza bera egiten ahalegintzen da:*
17 *Espainiako zapalkuntzari aurre egiten.*
- 18 *E: Gatazkaren azken urteen inguruan tabu handiagoa dago, frankismoari buruz baino?*
- 19 *N-16-Barakaldo: Bai. Errazagoa da frankismoaz hitz egitea, Franco hilda dagoelako, eza?*
20 *Suposatzen da ETAk armak utzi dituela, baina hala ere ETAk kalte handia egin dio euskal*
21 *naziotasun osoari, eta kalte handia eragin dio Euskal Herriaren izenari. Eta, batez ere, haren*
22 *irudiari; izan ere, zuk oraintxe Espainiako beste edozein tokitan ‘euskalduna [vasco]’ esan, eta*
23 *seguruenik jende gehienak ETArekin lotuko du. ‘Euskara’ esaten diozu, ETArekin lotzen du.*
24 *Gaur egun ere, suposatzen da irekiagoak direla jarreraz, baina ez. Eta, bada, nik uste dut,*
25 *hainbeste kalte eragin dienez gero, apur bat... bai, tabu izaten jarraitzen duela.*

Bi pasarte hauek Barakaldon egindako elkarrizketa bati dagozkio (jatorrizkoa gaztelaniaz; itzulpena gurea da); herritarren %25 euskal hiztunak diren gunen batean, alegia (Barakaldoko Udala, 2020). Elkarrizketatua migrazio jatorriko nerabe bat da; ez dauka testuinguru sozial euskaldunik, eta hizkuntzarekin daukan harremana eskolako euskara klaseetara mugatzen da batik bat. Euskara aipatzen duen lehenbiziko aldian, iraganeko errepresioarekin lotzen du. Diskurtso honen ezaugarri nagusia hizlariaren posizioa da: gatazkaren eskema polarizatu argi bat eraikitzen duen arren (biktima bat identifikatzen du: euskal kultura; eta kaltearen eragile bat: Espainia. Biolentzia, aldiz, oinarritzko nortasun-gatazka baten ondorio gisara azaltzen du), distantzia pertsonala markatzen du deskribatzen dituen gertakarietara: ez du bere burua kokatzen diskriminazio egoera horretan. Hizlariaren urruneko posizio hori sekuentzia narratiboko hainbat estrategia diskurtsibotan beha daiteke: hirugarren pertsonako aditzak eta aditz inpertsonalak erabiltzen ditu (3., 5., 9., 11. eta 12. lerroetan), eta horrela agenteak eta interlokutoreak ezabatzen ditu diskurtsotik. Indiferentziazko adierazpenek (6. lerroa) ere distantzia erakusten dute. Identifikazio edo inplikazio pertsonala adierazten duen une bakanetan, modalizatzailerak (14. lerroa) erabiltzen ditu narrazioa bere testuingurura ekartzeko.

Distantzia hori laburragoa da bigarren pasartean, elkarrizketak aurrera egin ahala elkarrizketatzailearekin konfiantza handiagoa hartu duenean. Pasarte horretan, ekintza diskurtsiboko bi partehartzaileak -narratzailea eta elkarrizketatzailea- esplizitatzen dira adierazpen apelatiboen bidez (19 eta 22. lerr.) eta tonu sendagozko adierazpen ebaluatiboen bidez. Narratutako gertakariak ere denboran hurbildu egiten ditu hizlariak, aditz denboretan orainaldia erabiliz (lehenbiziko pasartean iragana erabili du) eta deixiaren bidez (22 eta 24. lerr.) Euskararen aurkako aurreiritziak esplizitatuta geratzen dira erantzun honetan, baina beti besteren hitzetan, interdiskurtsibitatearen bidez eta iritzi bat orokortuz (“Euskara ETArekin lotzen da”); hizlariak ez ditu bere egiten posizio horiek, eta ez du bere burua posizionatzen aurreiritzi horien biktima gisara (25. lerr.).

3.2. Euskararen aipamenak ofizialtasunik gabeko eremuetan

Nafarroan egindako elkarrizketetan, alde handia identifikatu dugu gunen euskalduneko gazteek sortutako diskurtsoen eta gunen mistokoen diskurtsoen artean. Lehenbizikoetan, oro har, EAEn behatutako elementuak errepikatu dira: euskarari buruzko aipamen gutxi, eta gehienbat iraganari lotuak eta identifikazio pertsonal handirik erakutsi gabe naratuak. Bigarrenetan, aldiz, identifikatu ditugu euskara gatazkarekin eta aurreiritziekin lotzen dituzten zenbait diskurtso:

B adibidea: M-17-Tafalla

- 1 *M-17-Tafalla: Ba hori, Escolapiosekin elkartu ginenean eta haiek “etarrak” deitzen*
- 2 *gintuztenean, eta guk haiek “fatxak”. Ba azkenean bazen hor – o sea, ez geneukan ideiarik, eta*
- 3 *ezberdintzen gintuen bakarra izan zen euskara. Euskara jakitea edo ez. Orduan, ba hori: ba*
- 4 *haiek esaten zuten Nafarroa zela Espainia, guk esaten genien ezetz, ikasten genuelako Ikastolan*
- 5 *bazela – o sea, Ikastolan, LHn, ikasten genuen zazpi probintziak, Euskal Herria; eta haiek ez*
- 6 *zutelako [sic] halakorik ikasten. Horrek ezberdintzen gintuen pila bat, eta gatazka moduko*
- 7 *horiek bai bizi izan genituela.*
- 8 *E: Zuek momentu horretan bazenekiten zer esan nahi zuten “etarra” eta “fatxa” hitzek?*
- 9 *M-17-Tafalla: Ez, ez. O sea, agian – es que, uste nuena izan zen ETA zela talde bat, txikitan,*
- 10 *ez? Talde bat ba euskaraz zekiena eta euskararen alde zegoena. Baina ez nekien ezer gehiago.*

Van Dijk-en (2003) kontzeptuak erabiliz, hizlariak lau ideologiko argi bat eraikitzen du, *Besteen* kategoria bat (*outgroup*) eta *Gureen* kategoria bat (*ingroup*) polarizatuz. Lehenbizikoan leudeke Escolapios eskola erdaldun eta erlijiosoko ikasleak; bigarrenetan, aldiz, ikastolako haur euskaldunak, hizlaria bera barne. Hizlariak hainbat datu elipsatzen ditu kooperazio printzipioa jarraituz (Grice, 1975). Elkarrizketatzailearekin partekatutako informazioa dela aintzat hartzen du; besteak beste, ikastolek curriculum propioa daukatela geografia gaietan.

Erabateko identifikazioa erakusten du *ingroup* horrekiko, lehen pertsonako aditzek (1 eta 2. lerr.) eta izenordainen erabilerak (1, 2, 4 eta 5. lerr.) erakusten dutenez, eta aipatutako diskriminazioa ilustratzen duen narrazioa esperientzia pertsonal batean oinarritzen denez gero. Polarizatze-estrategia horretan, *ingroup*-aren ezaugarri positiboak eta *outgroup*-aren ezaugarri negatiboak nabarmendu ohi dira. Kasu honetan, hizlariak aitortzen du bi taldeek zeuzkatela elkarrekiko aurreiritziak; *etarra* eta *fatxa* termino peioratiboek metafora funtzioa betetzen dute kasu honetan, ezinezkoa baita gazteotako inor ETako kide izatea euren adinarekin. Ez dira, ordea, jarrera politiko bat irudikatzen duten metaforak, identitate kultural eta linguistiko bat baizik. Ondorioz, bere kulturagatik seinalatua den norbaiten gisara aurkezten du bere burua hizlariak. Bigarren erantzunean ikus daitekeenez, esperientzia horrek hainbesteko indarra izan zuen, ezen gatazka armatuari buruzko bestelako erreferentziarik ez zeukan gazte batek (ETA zer zen ez jakiteraino), gatazka hizkuntzarekin baizik ez baitzuen lotu. Hizlariak, nolanahi ere, ez dio heltzen eskema polarizatzaileari; estrategia diskurtsibo leuntzaile bat darabil, haurren ezjakintasuna nabarmenduz.

Esperientzia pertsonal gehien, ordea, Ipar Euskal Herrian egindako elkarriketetan (banakakoetan zein taldekoetan) topatu ditugu, eremu horretako parte hartzaileen proportzioa txikiena izan arren. Gazteon ahozko diskurtsoek iradokitzen dute gatazka linguistikoa oso present dagoela euren egunerokoan: haien hitzetan, euskaraz aritzeak “isolatzea” dakar, *Besteen* aurrean “sektarioak bezala” geratzea, edota norberari burla egitea, besteak beste. Datorren adibidean nerabeok agertutako esperientzia eta sentimendu horietako batzuk aztertuko ditugu.

C adibidea: taldeko elkarriketa Baionan

Parte hartzaileak: Aitor (M-16-Hendaia), Unai (M-16-Anhauze), Oihan (M-15-Hendaia) eta Urko (M-15-Hendaia) [aldatutako izenak]

- 1 *Aitor: Badago jende bat politikarekin zerikusi handirik ez duena eta aurreiritziz betea duena*
- 2 *burua, ez? Eta, ba gaur egun pixka bat deseraikitzen ari da hori, baina... dudarik gabe, baina*
- 3 *hemen bertan ere, zenbat aldiz entzun behar izan dugu Seaskako ikasleok armak erabiltzen*
- 4 *ikasten dugula Euskal Herriko jendearen partetik?*
- 5 *Unai: Euskal Herriko, baina ez euskalduna.*
- 6 *Aitor: Ez. Baina Euskal Herriko jendearen partetik. Hau da, jendea, zu joaten zara –*
- 7 *Unai: Hori usu, jendearen partez kostaldean, edo bada parte bat bizi dena arrunt*
- 8 *deskonektatuta, en fin.*
- 9 *Aitor: Bai, bai. Bizi hemen edo bizi Landetan, hemendik 50 kilometro gorago, berdin zaie.*
- 10 *Haiek bizi dira haien bolara, Euskal Herriarekin ez dute deus ikustekorik –*
- 11 *Unai: Horiek hemen dira: Biarritz, le Sud Ouest... ez da besterik.*
- 12 *Oihan: Gateâu Basque-eta.*
- 13 *Unai: Bai, eta hori gehien-gehiengoa.*
- 14 *Aitor: Aski duzu begiratu, momentu honetan 301 ikasle gara Etxepare Lizeoan. Ez dakit, ez*
- 15 *dago daturik zoritxarrez, interesgarria litzateke jakitea: Ipar Euskal Herrian zenbat gazte gara,*
- 16 *eta zenbat lizeotar gara? Izango gara ehuneko zer, bi? (...)*
- 17 *Urko: Ikusten duzu hemen lizeoan, ateratzen zara aisialdian eta da mundu desberdin bat. (...)*
- 18 *Aitor: Badira hogeit bat urte Etxepare auzo honetan dela, eta usatu dira, baina oro har ikusi*
- 19 *izan da, ez dakit, gu joan nonbaitera eta "A, Ikastolako haurrak dira" [despektiboki], edo "Les*
- 20 *basques", "C'est les basques qu'arrive".*
- 21 *Unai: Baina gero gauza onak badira. Ikustea hor beheko kebabeen euskoa onartzen dutela eta*
- 22 *korrikako afitxak badirela... (...) Enetzat pixka bat begiak ireki ditu, eta ni autobusean mintzo*
- 23 *naizenean Supeko jendearekin, eta denetik bada, bistan da.*

- 24 *Urko: ChronoPlusean nintzela, gure klaseko batzuk iritsi ziren, eta autobus gidariak esan zigun*
 25 *"Aio", ateratzean. Eta hasi ziren erraten "Zer da hizkuntza hori? Ez duzue errespeturik", eta*
 26 *horrela. (...)*
- 27 *Elkarrizketatzailea: Eta Ipar Euskal Herriko barnealdean ere gertatzen dira halakoak, edo*
 28 *gehienbat hirian?*
- 29 *Aitor: Nik uste guttiago. Eta gero bada hemen aunitz, bada belaunaldi bat, bi belaunaldi, hori*
 30 *Hego Euskal Herrian aunitz baten: barnealdeko jendea, baserrikoa, hirira joan eta ez zaio*
 31 *inoiz okurrituko euskaraz hitz bat botatzea. Hori: hartzen duzu Tolosar bat, duela bi*
 32 *hamarkadako Tolosar bat, eta Donostiara joan, eta o sea, ziudadera noa, eta euskaraz ez dut*
 33 *inoiz eginen. Eta hori han jada gainditzen ari da, hemen oraindik bada aunitz —*
- 34 *Unai: Bai, bai, bai.*
- 35 *Aitor: [Unairi] Zuk zure inguruan aski ongi jakinen duzu. Baionara etorri eta jende euskaldun*
 36 *aunitzeri, barnealdeko jende aunitzeri ez zaio inoiz okurrituko denda batera sartu eta "egun on"*
 37 *erratea. Inoiz. Automatikoki, frantsesera.*
- 38 *Unai: Bai, eta beti beldur hori, ez dakit, ez ulertuak izateq-eta. Eta orain gu ari gira, nik*
 39 *badakit justu gero Baca hastearekin, eta indarra egitea lehen hitza euskaraz egiteko, baina*
 40 *badakit gurasoentzat, edo amarentzat berdin, ez duela sekula eginen.*

Pasarte honetan, gazteen arteko hainbat negoziazio-sekuentzia identifika ditzakegu. Argi dago euren artean hurbiltasun-gradu altua dagoela: interakzio handia dago, eta ia ez da elkarrizketatzailearen interbentziorik behar. Tonua lagunartekoa da, eta zenbait adierazpen kategorikok erakusten dute parte hartzaileak eroso zaien ingurune batean daudela, testuinguruko hainbat datu elipsatzeraino (esate baterako, Seaskari edota euskoari buruz). Hala ere, hitzartzeen banaketak euren arteko botere harremanak ere islatzen ditu: Aitorrek eta Unaik (2. mailako ikasleak) hartzen dute elkarrizketaren denbora gehiena, eta Urkok eta Oihanek (1. mailakoak) batik bat entzule rola hartzen dute, ikaskideen tesiak indartuko dituzten adibideak ipiniz.

Elkarrizketaren lehenbiziko sekuentzian (1-17 lerroetan), nerabeek lauki ideologiko bat eraikitzen dute, *Besteak* identifikatzeko; euskaldunak (*Gu*) seinalatzen dituztenak definitzen ari dira. Elkarrizketatzaileak galdetu gabe, Aitorrek ekartzen du hizpidera bere tesia: "*Gu*, Seaskako ikasleok, ETArekin lotzen gaituzten aurreiritzien biktima gara" ("armak erabiltzen ikastea" metaforaren bidez adierazten da), hartara komunitate linguistikoari leporatuz biolentziaren ardura. Aitorrek galdera erretoriko bat darabil bere tesia enfatizatzeko, eta lehen pertsonako aditzak, bere interlokutoreak sentimendu horretan sartzeko. Puntu horretatik aurrera, bere tesia "negoziatutako egia" bat bihurtzen da elkarrizketan, eta gainerakoek haren gainean eraikiko dute euren argumentazioa.

Hasteko negoziazio bat dago, *outgroup*-a nork osatzen duen eta *gu*-gandik bereizten dituzten *haien* ezaugarriak zeintzuk diren ebazteko: lurraldea partekatzen dute, baina tokiko errealitate politikotik "deskonektatuta" -arroztuta- bizi dira. Unaik transformazio estrategia bat darabil Aitorren tesiari erantzuteko: *beraiek* Euskal Herrian *bizi dira*, baina *ez dira* euskaldunak, hau da, *ez dira gu*; identitate kultural bereziak dira. "Kosta", "Biarritz" eta "Gâteau Basque" kontzeptuek kontsumitzaile dirudunen irudi bat eraikitzen dute *Beste* horrengan, zeinak Euskal Herria bere produktu eta alderdi tradizionalengatik maite duen, eta ez bere bizitza politiko eta sozialagatik. "Sud-Ouest" terminoak bi kontzepturi egin diezaieke erreferentzia: 1) frantsesez argitaratzen den egunkari erregionala, lurraldean gehien saltzen dena; edota 2) Euskal Herria Frantziaren "hego-mendebalde" izatearen ideia. Bi kasuetan, ikuspegi geopolitiko erregionalista bat nabarmentzen da, zeinetan Frantziako estatua den fokuari erdigunea. Hori litzateke *outgroup*-aren beste ezaugarri nagusi bat: Euskal Herriaren nazio izaera ukatzea.

Aitorrek abiapuntuko tesi hori -"*Beraiek* dira arrotzak"- moldatzen du ideia bat errepikatuz: "Euskal Herrikoak dira", horrek eragiten dion kontraesana nabarmenduz. Kanporatua izatearen sentimendu hori 17. lerrotik 25.era esplizitatzen dute hizlariak, *Besteekin* alderatuta botererik gabeko gutxiengoak izatearen sentimendua deskribatzen dutenean. Aitorrek datu hipotetiko bat

darabil argudio estatistiko modura bere ikuspegia indartzeko, eta, aldi berean, galdera erretoriko batekin barne biltzen ditu bere hizketakideak. Urkok metafora hiperboliko batekin indartzen du tesi hori. Botere harremanen deskribapen horrekin, abiapuntuko tesia iraultzen dute: “*Gu* gara arrotzak” izango da elkarrizketaren oinarritzko kontsentsua aurrerantz.

Nerabeek hainbat esperientzia pertsonal dakartzate hizpidera. Aitorrek zuzeneko aipuak darabiltza *outgroup*-a imitatuz: ikastolako haurrei buruz tonu despektiboan mintzo direla ulertarazten du, baliabide fonikoak erabiliz; eta hizkuntza aldatzen du *haiek* frantsesez mintzo direla nabarmentzeko. Azken adibide honek ilustratzen du hizlariaren pertzepzio bat: *eurek* mehatxu edo inbasio gisara ikusten dituztela euskaldunak (tartean, hizlaria bera); euskaldunak dira *datozenak*, arrotzak edo arraroak.

26-30 lerroen artean, Unai *disclaimer* edo kontrakotasunezko tesi bat planteatzen du, estrategia leuntzaile gisara, kontrakotasunezko lotailu batekin: “Baina gero gauza onak ere badira”. Eta adibide batekin indartzen du bere iritzia: kasu honetan, kebaba *ez euskalduna*-ren metafora bat da; eta euskoa onartzea, aldiz, euskal komunitatearen ohiturekiko errespetuaren adibidea. Aitorrek kortesiazko estrategia batekin arrazoi ematen dio (28. lerroa), eta Unai argudio orokortzaile batekin erlatibizatzen du negoziazioa: “Denetik bada”.

Jarraian datorren sekuentzia narratiboan (31-35. lerroak), Urkok estrategia deuseztatzaile bat txertatzen du, bere ikaskideak eraikitzen ari ziren tesi leunetik aldendu eta laukia berriz polarizatzeko, *Haiek* negatiboki karakterizatuz: berak ere esperientzia bat (autobuseko diskriminazioa) erabiltzen du egoera oso baten metafora gisara. Seinalamenduaren pertzepzioa esplizitatzen du: euskaraz hitz egitea *Besteekiko* errespetu faltarekin lotzen dela.

Azkenik, Ipar eta Hego Euskal Herriko egoera soziolinguistikoen arteko aldeari erreparatzen diote gazteek, bereziki Aitorrek. Sekuentzia deskriptibo batekin, euskaldunen lotsa edo gutxiagotasun konplexua azaltzen du, espazioen arteko talka erabiliz metafora gisara: *barnealdeak* eta *baserriak* xumetasuna eta lotsa irudikatuko lituzkete; *hiriak*, *ziudadeak*, aldiz, sofistikazioa eta harrotasuna. Aukeraketa semantikoak (*gainditu* aditzak eta *han/hemen* eta *garai batean/oraindik* deiktikoak) irudikatzen du errealitate hori oztupo psikologiko gisara ulertzen duela hizlariak. Unai, amaieran, erresilientziaren narratiba bat eraikitzen du; *gurasoek* eta haien *beldurrek*, kasu honetan, iraganeko oztupo horiek irudikatuko lituzkete; eta *gu* kategoriak, oztupo horiek gainditzeko ari den belaunaldi gaztea.

4. Ondorioak eta etorkizunerako planteatzen den norabidea

Gure ikerketako parte hartzaileen diskurtsoen azterketa koalitativoa egiterakoan, hasierako hipotesiari helduleku bat eskain diezaioketen zenbait elementu behatu ditugu. Izan ere, alde nabarmena sumatu dugu euskarari buruzko aipamenetan; ez soilik haien kopuruan, baizik eta baita edukian ere. Gogoratu beharra dago elkarrizketen jatorrizko gaia ez zela hizkuntzarena, gatazka armatuarena baizik; ondorioz, hizkuntzari egindako erreferentzia guztiak elkarrizketatuek euren iniziatibaz egindako ekarpenak dira, inork lotura hori iradoki gabe. Oro har, euskarak estatus ofiziala daukan eremuetako gazteek -Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa iparraldekoek- gutxiagotan aipatu dute hizkuntza, gatazkari lotutako elementuen artean; eta, egin dutenetan, oro har iraganeko diskriminazioari lotuta aipatu dute. Oso gutxitan lotu dute euren testuinguru pertsonalarekin.

Bestalde, gatazkari buruz aritzerakoan, euskara gehien aipatu duten parte hartzaileak euskarak ofizialtasunik ez daukan eremuetako gazteak izan dira: Ipar Euskal Herrikoak eta Nafarroako gune mistokoak. Elkarrizketa horietan esplizitatu dute seinalatuta eta baztertuta sentitu izan direla euskal hiztunak izateagatik. Esperientzia horietako askok haurtzaroko oroitzapenekin eta ikastolako haurra izatearekin dute zerikusia, eta, diskurtsoaren eraikuntzan, esperientzia bat egoera soziolinguistiko osoaren metafora bihurtzen dute maiz. Hizlariok azaldu dutenez, euskaldun izateak inguruko gizartetik isolatuta sentitzea edota joera politiko zehatzekin -abertzaletasunarekin, eta, gatazka armatuaren testuinguruan, biolentziarekin- lotzea dakar. Hau bereziki esanguratsua iruditu zaigu, kontuan hartzen badugu elkarrizketa hauetan parte hartu

duten pertsonak 2000ko hamarkadan jaiotakoak direla; eta, ondorioz, ezinezkoa dela gatazka armatuan inplikaturik egotea. Areago: leporatzen zaien gaiari buruzko ezezagutza adierazi dute.

Seinalamendu horretan eragina izan dezaketen faktoreetako bat izan liteke, hain zuzen ere, hizkuntzaren normalizazio falta. Euskara ofiziala den guneetan, badirudi hizkuntza gutxiago politizatzen dutela gazteek. Aldiz, hizkuntzak aitortzarik jasotzen ez duen guneetan, haren inguruko iruditeria askoz politizatuagoa da, hari lotutako aurreiritzi eta sentimenduak bezalaxe.

Elkarriketen kopuruak ez du orokortze enpiriko baterako heldulekurik eskaintzen, baina haren analisi koalitatiboak gaia ikertzen jarraitzeko hipotesi bati bide ematen diotela uste dugu: hizkuntzak estatus ofizialik ez daukan guneetan, hizkuntza gutxitu horren erabiltzaileek askoz seinalamendu-pertzepzio handiagoa daukatela. Kasu honetan, aurreiritzi politikoak ikertu ditugu batik bat, baina interesgarria litzateke bestelako iruditerien azterketan ere sakontzea.

5. Erreferentziak

Amorrortu, E., Ortega, A., Idiazabal, I., eta Barreña, A. (2009) *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra - Kultura Saila.

Barakaldoko Udala. 2020. *Euskara sustatzeko ekintza plana (ESEP). Barakaldoko Udala. 2020-2024*.

Calsamiglia, H. eta Tusón, A. (2012) *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*. 3. ed. Bartzelona: Editorial Planeta.

Grice, P. (1975) Logic and Conversation in P.Cole & J.L. Morgan (arg), *Syntax and Semantics 3: Speech Acts*, Academic Press, New York. 41-58.

Madariaga Muthular, A. (2019) Komunitatea hats-bahiturik. Hiztunaren trauma: diagnosia eta paliatiboak. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 111, 99-123.

Torrealdai, J.M. (2018) *Asedio al euskera. Más allá del libro negro*. Donostia: Txertoa.

Tusón, J. (2010) *Los prejuicios lingüísticos*. Bartzelona: Octaedro.

Van Dijk, T. A. (2003): The Discourse-Knowledge Interface in G. Weiss & R. Wodak (arg), *Critical Discourse Analysis. Theory and Interdisciplinarity*, Palgrave Macmillan, New York, 85-108.

Wodak, R. (2006) Mediation between discourse and society: assessing cognitive approaches by CDA, *Discourse Studies* 8(1):179-90.

Wodak, R. eta Fairclough, N. (1997) Critical Discourse Analysis, in T.A. Van Dijk (arg.), *Discourse Studies. A multidisciplinary introduction. Vol. 2. Discourse as social interaction*, Sage, London, 258-84.

6. Eskerrak

Ikerketa honek Eusko Jaurlaritzaren doktoreaurreko diru-laguntza eta NOR Ikerketa Taldearen babesa jaso ditu.